

DANI BLANCO

**Koldo Aldalur**

♦ KAZETARIA

Puttetikoak

BAI, PATETIKOAK. Kontua da jakin berri dugula AEBetako golf federazioan oso kezkatuta daudela azken hilabeteotan laburrean bost milioi lizentzia galdu dituztelako. Lizentzia bakoitzak dirutza balio duenez, eta gero golfari izeneko horiek gastu itzela egiten dutenez klubetan, normaltzat jo beharko dugu negozio ikaragarri horren etekina jasotzen dutenak kezkatu egotea.

Itxura txarrekoa da galtzaile itxura ematea. Imajinatu: materialik hoberena eskutan dabilkizu, monitorerik trebeenak gertu, zelairik aproposenak eta milaka entrenamendu ordu zure gainean, eta zure maila hobetu ezin. Zer aipatu behar duzu ibilbidea ehun kolpetik gora amaitu baduzu zelaia orain 72 ingurukoa izanik. Nora zoaz 30etik gorako handikap-a jaitzi ezinik bazabiltza? Nola gin tonic bat gozatu aitzakia guztiak orain urte batzuk bukatu bazitzaizkizun? Erremedio txarra.

Baina ia arazo guztiek omen dute hasieran ikusten ez den irtenbidea, eta, hemen ere, aurkitu dute beraia: zuloak lau aldiz handitzea. Bai, lau aldiz handiagoak izango diren zuloak egitea. Zertarako ibili sufritzen helburuak lortu ezinik! Eta lau aldiz handituta ere, baldarrek ez badiutze irribarre eder batekin lanak amaitzen, meteorito baten kolpeak utzitakoaren pareko zuloak egin, eta hala ere ez badago gus-tura uzteko modurik, ozono kapa baino handiagoak egin denak, poz-pozik ordain ditzaten kuotak, material berriak, monitoreak eta gin tonicak.

Bunkerreko hondarretan itoko dira kirolak bere-bereak dituen "baloreak". Esfortzuaren ondorioz lortutako abilitadea, zure

buruari eta gainontzekoei erakustea. Ondo penatu ostean, garai-pen txikienak duen zapore gozoa bakardadean edo lagun artean dastatzea eta ospatzen jakitea. Zure mugak naturaltasunez onartzea. Gainontzekoenak errespetatzen ikastea. Harrokeria arrazoiara makurtzea, umiltzea.

Eta honetan ari naizela beste era bateko kirolariak etortzen zaizkit gogora: kirolaz gozatze hutsagatik, umeak oheratu ostean euritara ateratzen dena korrika saiotxo bat egitera, esate baterako. Inori esplikaziorik eman beharrik gabe, hanka pausoa behartu gabe eta putzuak saihesteko inongo asmorik gabe. Gozamenaren truke, korrika. Eta horrelakoak zientoka.

Ez dakit usteltzen ari den gizarte baten isla ez ote den helburuak lortzeko esfortzuaren balioa ahaztu behar hori

Esaiezu haiei belarriaren ertze-ra euren buruari iruzur egiteko. Seguru ez dakitela kilometroa zenbatean egiten duten, kilometroko zenbat gozatzen duten badakite adierazterik ez badago ere.

Eta ez dakit usteltzen ari den gizarte baten isla ez ote den helburuak lortzeko esfortzuaren balioa ahaztu behar hori. Zuloak handitzean zaila errazago bihurtu daiteke, baina besteak engainatzen saiatzen den hark inoiz ez du bere burua engainatu-ko. Ala... bai? ■



BERTSO BERRIAK

Gure esku
dago

Beñat Gaztelumendi



Doinua: Hamalau heriotzena.

Zure eskua hartu
ezkero nireak
zeinek gelditu gure
ametsak, ideak!
Ekar ditzala gure
eskuak bideak:
bueltan demokrazia
ta eskubideak
katea josiz izan
gaitezen libreak.

Manolo Arozena



Doinua: Aita Jainkoak egin banindu.

Jaio orduko lotuta gendun
jaso ezin den katea
batzuentzako mesede dena
euskaldunentzat kaltea
guk ez dugu nahi aterik itxi
edo inora joatea
bakar bakarrik nahi duguna da
gu garenak izatea.

Igor Elortza



Doinua: Uso xuria errazu.

Herritarrak ez al daki
zer estatus, zer lur zati
nola-norekin eraiki?
Ekologian, genero aldetik
finantzatan, kulturalki
nik gutxiago bozkatu nahi dut
ta gehiago erabaki. ■